

Garrantzizko informazioa Chillida Lekurako

Sarbidea eta aparkalekua Txikijazz kontzertuetarako (Claire Martin Quartet, Arima Soul):

Kontzerturako sarrerek museorako, erakusketetarako, piknik gunerako eta tailerrera sarbidea ematen dute. Museoak 10:00etan irekitzen ditu ateak. Tailerra 11:00etan hasiko da eta kontzertua 12:30ean.

Ibilgailu pribatuan iristen bazara, Galarretako aparkalekuan utzi beharko duzu. Autobus bat egongo da dohainik Galarretatik museora joateko (10:30etik 12:30era) eta Galarretara itzultzeko (14:00etatik 15:00etara).

Sarbidea eta aparkalekua 19:30ean kanpoaldean egingo diren kontzertuetarako (Bascolombia, Iñaki Salvador/Marco Mezquida: *Dichosos tributos*):

Kontzertu hauetarako sarrerek museorako sarbide-eskubidea ematen dute. Gutxienez 40 minutu lehenago iristea gomendatzen dizugu. Kontzertua 19:30etan hasiko da.

Ibilgailu pribatuan bazatoz, Galarretako aparkalekuan utzi beharko duzu. Doako autobus bat egongo da Galarretatik museora 18:30etatik 19:30etara, eta ekitadia eta gero Galarretara 22:00ak arte itzuliko da.

Sarbidea eta aparkalekua Zabalaga baserrian egingo diren kontzertuetarako (Lew Tabackin Quartet, Jordina Millà & Barry Guy):

Kontzertu hauetarako sarrerek museorako sarbide-eskubidea ematen dute. Gutxienez 40 minutu lehenago iristea gomendatzen dizugu. Kontzertua 19:30etan hasiko da.

Kontzertura ibilgailu pribatuan bazoaz, museoko aparkalekuan utzi ahal izango duzu ibilgailua.

Arropa, oinetakoak eta beste gomendio batzuk:

Ekitaldian zehar tenperaturak gora edo behera egin dezakeela gogorarazten dizugu. Beraz, arropa egokia, txanoa, eguzkitako krema eta museoko zelaietan ibiltzeko oinetako erosoak ekartzea gomendatzen dugu.

Bestetik, manta edo esterilla bat ekartzea gomendatzen dizugu, kanpoaldeko kontzertuez erosotasun osoz goza dezazun; hamaka kopuru mugatu bat ere egongo da bertaratzen direnentzat, iritsiera ordenaren arabera.

Laguntza-txakurrak:

Gogo onez eta kosturik gabe onartzen dira laguntza-txakurrak (gida-txakurrak, seinalekoak, alerta medikokoak, autismoa duten pertsonenak, mugikortasun murriztua dutenei laguntzekoak, etab.), Ahalmen Urrituentzako Laguntza Txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 Legeari jarraiki. Ez dira onartuko gainerako txakurrak, ezta bestelako animalia batzuk ere.

Edozein zalantza edo kontsulta baldin baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan:

reservas@museochillidaleku.com / infojazz@donostia.eus